

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marina Padilla Boveda

*Aramaio, Araba
(1917-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Etxaguen auzoko Urruti baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Gasteizko babes-etxekoa zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Eskolan auzoko abadearekin hasi zen, eta gerora kaleko eskolara joan zen Bittori maistrarekin. Han doktrina irakasten zieten gehienbat. Sei hilabete eman zituen Gasteizen neskame lanetan. Bestela etxean egiten zuen lan, harik eta Urdungio baserrira ezkondu zen arte, etxeko [Iñaki Larrañaga](#)rekin. Bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARA-043

- **Proiektua:** Aramaioko sineskerak eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lizarralde, Saioa
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Mini Disc

ARA-044

- **Proiektua:** Aramaioko sineskerak eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lizarralde, Saioa
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Mini Disc

ARA-074

- **Proiektua:** Aramaioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-11-19
- **Iraupena:** 114 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Eskola baino gehiago, dotrina

- **Erref:** ARA-074/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Auzoko abadearekin lehenengo eskolak jaso eta gero kaleko eskolara joan zen, herriko Bittori maistrarekin. Eskola erdaraz ematen zuen. Gerra hasi zen egunean bete zituen Marinak hemeretzi urte. Dotrina liburuxka zen eskolan zuten liburu bakarra.

Transkripzioa

-Eta eskolan nun ibilli ziñan?
 -Ba lehenengo abadiatz, abariak emuten euen, eta haretxeaz apur baten. Gero bestelan, kalien, gauken denporia kalien. Denpora asko ez gen euko guk eskolara ta juteko orduan, denporioi kontuz egongo zan.
 -Eta kalien maixuen izenik edo goguan dakotzu?
 -Maistria. Bittori! Bai, nik baiño hobeto dakitzu zuk. Goguan hobeto dakotzu.
 -Maistria, Bittori.
 -Bai. Bittori izena, apellidua zela zan, apellidua be ba, hemengoxia zan, bertakua zan.
 -A, herrikua zan?
 -Bai.
 -Aramaixotarra?
 -Bai, zaharra zan, e? Zaharra, ya alabak eta danak haundi indda eukan hak, haundixak.
 -Zuk eskolia euskeraz jaso zebeñ ero erderaz?
 -Euskeraz.
 -Euskeraz?
 -Ez, erderaz, erderaz.
 -Baiña ondiok gerria pasau barik euen. Zu han ibilli ziñanian.
 -Bai, horixe! Gerria aurretik, gerria! 19 urte neuken nik gerriak urten euenien. Egun-egunien e?
 -Bai, zeure urtebetetien, bai.
 -Orduentxe egunien 19 urte itten jaten. Da 14 urteaz eskolan... hori kalea jun nitzena, neu bakarrik jun nitzen e? Da kalera, da hangua ba aurretik, zenbat izango zan ba, 14 urte baneuken, in nittueneko 14 urte seguruetik.
 -14 urte arte eskolan ibilli ziñan?
 -Bai, eskolan, noizbaitten. Dotriña gehixau, eskolarako libururik eta ez geuken guk. Dotriña kartillia, da dotriña bai, ondo dotriña sartu jatan niri buruen, baiña eskoliai, ba eskolioi...
 -Eta zenbat urtekin hasi ziñan goguan dakotzu?
 -Nun?
 -Eskolan.
 -Nik eztakit zenbat urtekin, [...] eztakit, urtiok eztakit, neu ta besten batzuk holaxe ibiltten ziren han.

2. Neskabila-mutikotako jolasak

- **Erref:** ARA-074/006
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Garizuman txirikilletan jolasten zuten. Kui-kuika eta toke-torreka ere jolasten zuten. Neskak sokasaltoka, harrapo-harrapoka eta 'hazakazka' (tortolizka) jolasten zuten.

3. Baserrian lan guztiak eskuz

- **Erref:** ARA-074/010
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Marinak lauzpabost hilabete egin zituen neskame Gasteizen. Baina bestela beti etxean egon zen. Etxean ganaduak eta ardiak zituzten. Soroko lan guztiak eskuz egiten ziren; garia trilluarekin jotzen zuten larrainean. Gero lau baserriren artean matxaka izeneko makina erosi zuten. Etxe batzuetan behorrak gainean ibiliaraziz jotzen zuten garia.</p>

4. Etxean ura ez egoenean

- **Erref:** ARA-074/013
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ezkonduta eta gero jarri zuten ura etxean. Argindarra auzoko errostatik hartzen zuten. Errotako argi-sorgailua ez zuten ondo zaindu eta hondatu egin zen. Baldean ura sukaldara ekarri, ur hori sutan berotu eta garbitzen ziren. Marinak Etxagueneko uraskan beretzen jartzen zituzten arropak, gero xaboiz garbitzeko.

5. Sutako hautsa xaboi

- **Erref:** ARA-074/014
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:37:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Uraska ondoan sua egiten zuten arropak egosteko. Gaztaina enbor huts

batekin egindako pote baten egosten zuten arropa, harik eta txapazko bidoi bat eskuratu zuten arte. Lixiba egiteko sutako hautsa erabiltzen zuten xaboi gisa.

6. Lixiba hirua astean behin

- **Erref:** ARA-074/015
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:37:52. **Bukatu:** 00:38:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Uraskan xaboitu ondoren eramaten zituzten arropak etxera sutako hautsarekin lixiba egiteko. Hiru astetik behin edo egiten zuten lixiba.

7. Bi eztei-ospakizun ezkontzako

- **Erref:** ARA-074/016
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:38:41. **Bukatu:** 00:42:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>la jaio zirenetik ezagutzen dute elkar. 1943. urtean ezkondu ziren. Astebeteko eztei-bidaia egin zuten, Donostia eta Bilbo bisitatuz. Ezkontza egunean ezteiak emaztegaiaren etxean ospatzen ziren gazteekin. Eztei-bidaia bueltan senar-emazteen etxean ospatzen zen helduekin. Marinarenean ardia hil zuten, eta Urdungion txahala. Ardoa eta pattarra ere izaten zen.</p>

8. Itsasoa, putzu handi bat

- **Erref:** ARA-074/017
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:42:44. **Bukatu:** 00:46:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Orduan igandetan beti kafea hartzen zuten; bestela buruko mina eta zutenean hartzen zuten. Eztei-bidaia aurretik Marina behin ere ez eta lñaki behin bakarrik egonda zeuden Donostian. Jesuitekin joan zen Donostiara, Getariatik bueltan kamioiez. Getarian itsasoa ikusi zuenean, putzu handi baten itxura hartu omen zion. Aramaio goiko gain batetik ikusten omen da batzuetan itsasoa.</p>

9. Osaba harri-zulatzilea

- **Erref:** ARA-074/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:46:11. **Bukatu:** 00:48:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aita, aitajauna eta hiru seme-alaba bizi ziren Urdungion Marina eta Iñaki ezkondu zirenean. Beste osaba mutilzahar bat ere egon zen etxean bizitzen, kanpoan lan egiten zuena. Harri-zulatzaille jarduten zuen obra handietan, Esako urtegian esate baterako. Bost seme-alaba dituzte Marina eta Iñakik.</p>

10. Baserritar gutxi Aramaion

- **Erref:** ARA-074/020
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Hustu ziren baserri askotan berriro ere jendea bizi da, baina bizimodua etxetik kanpo irabazita. Baserritarrik apenas geratzen da Aramaion.

11. Elurteak etxea kaltetu

- **Erref:** ARA-074/022
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:53:02. **Bukatu:** 00:57:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Elurte handietan, teilatutik elurra kendu behar izaten zuten. Elurraren pisuagatik etxeek plomua galdu eta lan handiak izan zituzten zuzentzeko.

12. Otxandion hasi zen miliziano lanetan

- **Erref:** ARA-074/024
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 01:00:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran frontea etxetik ikusten zen, baina ez zen jausi bonbarik herri barruan.

Gorriak mobilizatu zituztenean, Iñaki boluntario joan zen, hartara destinoa aukeratzeko eskubidea zuelako. Otxandion egon zen miliziano, eguneko 10 pezetako soldatarekin. Gernikako bonbardaketa egunean, Iñaki gaixorik eraman zuten anbulantzia Zornotzatik Bilbora. Han izan zuen Gernikakoaren berri.

13. Lur beltzaren ustiapena

- **Erref:** ARA-074/028
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:08:24. **Bukatu:** 01:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lur beltz horren ustiapena kontu zaharra omen zen ordurako. Durangarren batzuk aurretik ibiliak ziren ustiaketan. Iñaki eta beste bi garraiolari ibili ziren gurdiekin lurra eramaten; lurra atera, kargatu eta garraiatu egiten zuten. Kamioia Aramaioa etortzen zen lurraren bila.

14. Etxaguengo eskola berria

- **Erref:** ARA-074/031
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:14:10. **Bukatu:** 01:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Euren umeek Etxaguen auzoko eskola berrian ikasi zuten. Gaur egun eskola horretan auzoko elkarte bat dago.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com